

507/2024 EBAZPENA, UZTAILAREN 8KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, EBAZPEN HAU ZUZENTZEN DUENA: 472/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 24KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN BAITA FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO ETA ERIZAINZAKO IRAKASKUNTZA-UNITATEKO FAMILIAKO MEDIKU FAKULTATIBO ESPEZIALISTA LANPOSTU BAT BETETZEKO LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO KOORDINAZIO ZUZENDARIORDETZAN, BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN/ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN/ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ.

Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 24ko 472/2024 Ebazpenaren bidez, Gipuzkoako Familia eta Erizaintza eta Komunitateko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Familiako Mediku Fakultatibo Espezialistaren lanpostua betetzeko deialdia egin zen, behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, «Administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada. Behin betiko barne-mugikortasunean betetzeko deitutako lanpostuetako baten deskribapenean akats bat antzeman denez, zuzendu egingo da.

Horregatik guztiagatik, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa. – Ebazpena ematea, Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 24ko 472/2024 Ebazpena zuzentzeko. Ebazpen horren bidez, Gipuzkoako Familia eta Komunitateko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Familiako Mediku Fakultatibo Espezialista lanpostu bat betetzeko deialdia egiten da. Lanpostu hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian bete behar da, behin betiko barne-mugikortasunaren bidez/aldi baterako barne-sustapenaren bidez/zerbitzu-eginkizunen bidez.

Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 24ko 472/2024 Ebazpenak lanpostu hau deitu zuen:

| HELBIDEA | ZUZENDARIORDETZA | ZERBITZUA | HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA/DER RIGORTASUN-DATA | DESTINO KOP. |
|--------------------------------------|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|--------------|
| Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza | Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza | Gipuzkoako Familia Medikuntzako eta Erizaintzako eta Komunitateko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatea | 2. HE 2005/06/01 | 1 |

Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunean akats bat dagoela ikusi denez, «2. HE» jartzen duen tokian «3. HE» jarri beharko luke.

Beraz, destinoaren deskribapena honela zuzendu da:

| HELBIDEA | ZUZENDARIORETZA | ZERBITZUA | HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA/DE RRRIGORTASUN-DATA | DESTINO KOP. |
|--------------------------------------|-----------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|--------------|
| Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza | Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza | Gipuzkoako Familia Medikuntzako eta Erizaintzako eta Komunitateko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatea | 3. HE 2005/06/01 | 1 |

Bigarrenena.- Ebazpen hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. – Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunetz luzatuko da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. – Gainerako jardueretan mantentzea Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 24ko 472/2024 Ebazpenean ezarritakoa. Ebazpen horren bidez, Gipuzkoako Familia Medikuntzako eta Erizaintzako eta Komunitateko Medikuntzako Irakaskuntza Unitateko Familiako Mediku Fakultatibo Espezialista lanpostu bat betetzeko deialdia egiten da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko.

Bosgarrena. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 8a.



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA